

Zaintza arreta eskaintzea da

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Zaintzak izan du oihartzuna aurtengo martxoaren 8an. Kartel askotan ikusi dut adinekoen zaintzarekin lotutako iruditegia, eta ikuspegi murriztua dela pentsatzen badut ere, hausnartzeko tarte hartu dut. Uste baitut badugula joera adinekoekin zer egin behar dugun eztabaidatzeko, haiek zer nahi duten ahaztuta.

Hasteko, osasuntsu daudela irizten diogunean, zaintza jasotzeko adinean egonik, zaintzaile funtzioa betetzeko eskatzen diegu. Eta mendekotasunak horretarako aukerarik uzten ez dienean, ahaztu egiten zaigu beren buruaren ar-

duradun direla, eta haiei dagokiela nola zahartu erabakitzea.

Zaku batean irudikatzen ditugu, denak molde beretik ateratakoak bailiran, eta behar unibertsalei erantzuteko neurriak planteatzen ditugu. Baina erantzuten al diegu behar partikularrei? Eskaintzen al diegu autorrealizazio pertsonalerako aukerarik? Ahazten bazaigu ere, adinekoak ere eskubidedun herritarrak dira, eta komunitatearen eraikuntzan ere parte hartzen dute, gutxienez, dagozkien zergak ordainduta.

Izan ere, pertsonen gabeziei arreta eskaintzen zaie, baina ez pertsonen bere ho-

rretan. Garrantzitsua da ulertzea osasuna eskubidea dela, ez betebeharra, eta ezin dugula nortasunerako eskubidearen gainetik jarri. Zaintza pertsona batek zer behar duen pentsatzea da, arreta eskaintzea, bere nortasunaren eta duintasunaren arabera bizitzeko aukera izan dezan. Ez bere gabezia guztiak identifikatuta eta aseta izatea, pertsona zaintzea eta asebeteta izatea baizik. Pertsona erdigunean duen arreta eredua behar dugu, ongi emandako zerbitzuetatik ongi tratatutako pertsonetarako jauzia egin behar dugu. Hasteko, ordea, zaintza emango duenaren duintasuna bermatzea da gakoa. •

Txiriparen teoria

Joxean Agirre

Mikel Zabalzaren auzia dela eta, prentsan irakurri ditudan le-kukotasunetatik bi iruditu zaizkit lazgarrienak, Joxe Mari Olarrak egunkari honetan idatzi zuen artikulua (18 aldiz atxilotu zuten) eta Josu Mujikari “Berria”-n egin zioten elkarritzeta (Gomez Nietoren grabazioan aipatzen den presoa).

Gaiaren inguruko gogoeten artean iradokitzaileena, berriz, orain bizpahiru aste Kepa Kortak egunkari honetan idatzi zuen “Txiripaz” izeneko zutabea izan zen, azkar eta gaizki laburbiltzeko, erregistratuta dauden bost edo sei mila tortura kasuei txiripaz libratu zirenak gehitu behar zaizkiela baitzioen, beste milaka asko alegia.

Eta iradokitzailea da, txiriparen gaia edo «zer gertatuko zen, baldin eta ...» esaldiari jarraipena emateak fikzioari,

azken batean beldurrari, bidea ematen diolako.

Gurean, anai-arrebon artean bakarrak ezagutu zuen tortura. Besteok suertea izan genuen. Nik egun bat eta gau bat egin nituen atxilotuta Parisen Burgosko epaiketaren kontrako kartel pila bat aurkitu zituelako Poliziak bizi ginen etxean. Susto txiki bat izan zen. Gertakaria hemen izan balitz, epelak hartuta aterako nintzen.

Bakarrak ezagutu zuen tortura, baina hura atxilotu zuten edo ezkutatuta egon zen bakoitzean familia osoa ibili ohi zen dantzaz. Okerrena gurasoei egokitzen zitzairen. Artean baserrian bizi ziren eta guardia zibilak joan ohi ziren erregistroak egitera.

Badut eszena gogoangarri bat. Arratsalde batez bisitan joan eta baserriko sukaldea kez beteta aurkitu nuen eta

ama ekonomikaren alde batean pilaturik zituen liburuak erretzen ari zen. Marxen “Kapitala” izan zitekeen, irakurri gabea noski, eta Leninen obra osoa, hau ere irakurri gabea, eta gisako beste azal gogorreko hainbat. Ez dago zatituta ere gisa horretako liburuak erreko dituen ekonomikarik. Liburu horien artean nobela batzuk ere bazeudela oharturik, amari kargu hartu nion eta berak bizarra zuten autore guztiak hartu zituela erantzun zidan.

Goizeko ordu txikietan agertzen ziren eta auzoko nagusia esnatu eta lekuko gisa zutela ematen zioten itzulia baserriko zokoei. Ondoren amak kafesnearekin gailetak jartzen zizkien gosaltzeko sukaldeko mahaian. Gajoak pasatzen zituen apuruez gainera gure errietak entzun behar izaten zituen guardia zibilei gosaria ematen zielako. •